

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko otsailaren 1a. IX. urtea. 2.352. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

Iñaki Garcia Nekazaria

## «Baratze sozialak landu nahi ditut, lanaren truke jendeari produktuak emanez»

Nekazaritza ekologikoaren aldeko apustua egin du Iñaki Garciak; Intxaurren jaio zen, baina lurrarekiko duen maitasunak Tolosaldera ekarri du

Fraisoren ikasi zuen nekazaritza ekologikoa, Aldaba Txikin bizi da, eta Barazki Bizidunak bezala batailatutako duen Berrobiko Telleri negutegiko arduraduna da 04



Iñaki Garcia gaztea Berrobiko Barazki Bizidunak negutegian. A. BELAUNZARAN

## Urteroko kultur ekitaldiak eta 'Jeiki! Jeiki!' erakusketa, 2011n bisitari gehien jaso dituztenak

Tolosako Aranburun jarritako Inauteriei buruzko erakusketak arrakasta handia izan du; Leidor aretoan, Pirritx eta Porrotx eta Poxpolo ta Kompainia, ikusle gehien izan dituztenak 02-3

### Luismi Espinosa

Abesbatza lehiaketako zuzendaria

«Antolakuntzan milaka lagun aritu dira; beraiek gabe ezinezkoa litzateke lehiaketa egitea»

Tolosako Ekinbide Etxeak EHU-Donostiako Orfeoia saria jasoko du etzi

Elkarrizketa 03

## Adingabeen gizarteratzearen aldeko apustua egin du diputazioak

Ander Rodriguez Gizarte gaietarako diputatuak dioenez, ez dute Zizurkilgo adingabeen zentroa itxiko; PPK eta PSE-EEk bere hitzak kritikatu dituzte 07



sarrerak



HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

Otsailak 5 • Igandea  
18:00etan  
Donostiako Ilunben

**LAGUN ARO GBC**  
Blancos de Rueda  
saskibalo partida



harpidedunentzat  
**TXOKA hitza**



Zozketan parte hartzeko deitu **943 65 56 95**



Jeiki! Jeiki! erakusketak ia 6.000 bisitari baino gehiago jaso zituen iaz. | URKIZU

# ‘Jeiki! Jeiki!’k eta urteroko hitzorduek izan dute 2011n harrerarik beroena

Tolosako Udaleko kultura batzordeak 2011. urteko kultur jardueren eta jaien memoria egin du txosten batean

Udabal liburutegiak sekula baino harrera hobea izan du pasa den udan

## Itzea Urkizu Tolosa

Tolosarrekin, urteroko hitzordua duten Leidorreko kultur jardueren eta *Jeiki! Jeiki!* erakusketari egin zioten harrerarik beroena 2011n. Hala azaldu du udaleko kultura batzordeak egin duen iazko memoriak; liburutegietako, musika eskolako, artxiboko, ikus-

kizun eta musika emanaldietako, zinemako, erakusketetako nahiz jaietako jardueren inguruko xehetasunak bildu dituzte bertan.

### Liburutegiak

Aranburu liburutegiko nahiz Errota liburutegiko datuak, 2010eko antzekoak izan ziren iaz, udalaren txostenaren arabe-

ra. Dena den, udako Usabal liburutegiko datuak «inoiz baino altuagoak» izan direla nabarmendu dute arduradunek: «Nabaria da Tolosaldeko liburutegi gehienak abuztuan itxita daudela».

Bisita kopuruari dagokionez, haur liburutegiko datuek bikoiztu egin zituzten helduen liburutegikoak: «Batzuetan bisita kopurua gehiegizkoa da liburutegiak dituen baliabideetarako». Bide beretik, helduen liburutegian nabaria da, azterketa garaian bisitari kopurua igotzen dela; iazko maiatzean eta ekainean, gainontzeko hilabeteetako bisita kopuruak bikoiztak izan ziren ia.

Bi liburutegien kasuan, igo egin da bazkide kopurua, eta tolosarreko arteko irakurzaletasuna hazten doanaren seinale izan daiteke; izan ere, 6.500 bazkide baino gehiago dituzte Aranburu eta Errotan. Egindako maileguak, berriz, 34.000 baino gehiago izan ziren 2011. urtean.

### Artxiboa internetera zabalduz

Artxiboko daturik nabarmenena kontsultena da; izan ere, posta elektronikoko bidez egindako kontsultak izan dira ugariak, 2011. urtean. Artxiboko arduradunek, azken urteotako joera nagusia dela baieztatu dute: «Gero eta galdera gehiago egiten dituzte inter-



Dinkariren *Ari du* emanaldia iazko ikusienetakoa izan zen. HITZA

netez». Iaz egindako kontsulta eta ikerketen artean, bat nabarmendu du udalak, txostenean: «Ume desagertuen arazoa dela eta, egin diren eskaeretako asko hilerriko lurperatuen liburutetako kontsultak izan dira».

Kontsultak eta ikerketak jendearen ohitura berrietara nahiz joeretara egokitzeko, Eusko Jaurlaritzak digitalizatze ematen dituen diru laguntza bereziak eskatu zituzten iaz. Honen bidez, artxiboko langileek XX. mendeko elektronikoko bidez egindako kontsultak izan dira ugariak, 2011. urtean. Artxiboko arduradunek, azken urteotako joera nagusia dela baieztatu dute: «Gero eta galdera gehiago egiten dituzte inter-

netez». Iaz egindako kontsulta eta ikerketen artean, bat nabarmendu du udalak, txostenean: «Ume desagertuen arazoa dela eta, egin diren eskaeretako asko hilerriko lurperatuen liburutetako kontsultak izan dira».

Kontsultak eta ikerketak jendearen ohitura berrietara nahiz joeretara egokitzeko, Eusko Jaurlaritzak digitalizatze ematen dituen diru laguntza bereziak eskatu zituzten iaz. Honen bidez, artxiboko langileek XX. mendeko elektronikoko bidez egindako kontsultak izan dira ugariak, 2011. urtean. Artxiboko arduradunek, azken urteotako joera nagusia dela baieztatu dute: «Gero eta galdera gehiago egiten dituzte inter-

### Pailazoaren arrakasta

Leidor eta Topic aretoetan iaz eskainitako emanaldien artean, pailazoak izan ziren arrakastatsuenak, besteak beste; Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsek martxoaren 26an egindako bi saioetan bete egin zen Leidor aretoa,

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

**Ikuskizunak****LEIDORREKO IKUSIENAK**

- 1. Ongi etorri, Pupu eta Lore (Pirritx, Porrotx eta Mari Motots).**  
826 ikusle.
- 2. Poxpolo ta Konpainia, lehen saioa.**  
815 ikusle.
- 3. Txolarre irratiko bertso saioa.**  
800 ikusle.
- 4. Benito Lertxundi, Itsas ulu zolia.**  
782 ikusle.
- 5. Ari du. (Oinkari dantza taldea).**  
761 ikusle.
- 6. Poxpolo ta Konpainia, bigarren saioa.**  
718 ikusle.
- 7. Coppelia (Udal dantza tailerra).**  
708 ikusle.
- 8. Bebe.**  
611 ikusle.
- 9. La fuerza del destino (Tributo a Mecano).**  
570 ikusle.
- 10. Con los ojos cerrados (Ara Malikian).**  
519 ikusle.

**Zinema****LEIDORREKO IKUSIENAK**

- 1. Phineas y Ferb.**  
800 ikusle.
- 2. Tintin.**  
700 ikusle.
- 3. Enredados.**  
653 ikusle.
- 4. Ordezko andereñoa.**  
652 ikusle.
- 5. El discurso del rey.**  
591 ikusle.
- 6. Katu bat Parisen.**  
565 ikusle.
- 7. La llave de Sarah.**  
539 ikusle.
- 8. También la lluvia.**  
513 ikusle.
- 9. Piratas del Caribe 4.**  
503 ikusle.
- 10. Más allá de la vida.**  
476 ikusle.

**Erakusketak****ARANBURUKO IKUSIENAK**

- 1. Jeiki! Jeiki!**  
6.889 ikusle (bataz bestekoa: 144 ikusle egunean).
- 2. Esna bidean eta Baserritik Zerkasira.**  
737 ikusle (bataz bestekoa: 74 ikusle egunean).
- 3. Makina-tu eta Tolosako egutegiko argazkiak.**  
302 ikusle (bataz bestekoa: 62 ikusle egunean).
- 4. Napoleon eta panpinak eta Angel Cuervo.**  
160 ikusle (bataz bestekoa: 40 ikusle egunean).
- 5. Kolorearen poza, Menchu Gal.**  
1.343 ikusle (bataz bestekoa: 34 ikusle egunean).

eta gauza bera gertatu zen, Poxpolo ta Konpainia taldearen abenduaren 28ko bi saioetan ere.

Emanaldi hauez gain, urteroko hitzorduek ere harrera beroa izan zuten iaz Tolosan. Hauetarikoz batzuk dira, Txolarre irratik antolatzen duen bertso saioa nahiz Benito Lertxundik maiztaren 6an eskaini zuen kontzertua; Leidor aretoko ia eserleku guztiak bete ziren emanaldi haueetan ere.

Aipaturikoen bidetik, 2011 urteko arte eszeniko nahiz musika emanaldirik ikusien artean daude Oinkariren *Ari du*, udal dantza tailerraren emanaldia, Bebe abeslariaren kontzertua, *La fuerza del destino* musikala, Ara Malikian eta *Crimen Perfecto* antzezlanak.

**Tolosako zinemaz gozatzu**

Zinemak ere, Tolosako kultur jardueren agendan, leku nabarmena hartzen du urte osoan zehar; horren erakusle dira, iaz Leidoren nahiz Topic-en eskainitako 345 saioak.

**Ume lapurtuen auzia dela eta, lurperatzeen kontsulta asko izan dira artxiboan**

2010ean baino ikusle gehiago bildu ziren filmetan iaz, eta era berean, sarrera nahiz bono gehiagoko saldo zituzten.

Ikusle gehien bildu zituzten filmak, *Phineas y Ferb*, *Tintin*, *Enredados*, *Ordezko andereñoa*, *El discurso del rey*, *Katu bat Parisen*, *La llave de Sarah*, *También la lluvia*, *Piratas del Caribe 4* eta *Más allá de la vida* izan ziren iaz.

**Inauteriek sortzen duten grina**

Zehazki, hamaika erakusketa izan ziren iaz, Aranburu jauregian. Batzuk besteak baino arrakasta handiagoa izan zuten, baina bisitari kopuruari erreparatuz gero, Inauterietako argazki eta elementuekin egindako *Jeiki! Jeiki!* erakarririk zuten ikusle gehien; 48 egunean, ia 7.000 bisitari jaso zituen.

Bataz bestekoa eginez gero ere, *Jeiki! Jeiki!* izan zuen harrera beroena ikusleek artean; *Esna Bidean*, *Targazki*, *Makina-tu* nahiz *Egutegiko argazkiak* erakusketek ere piztu zuten tolosarren jakin mina.

**↓ Euskarazko liburuak****7.019**

■ **Maileguan emandako euskarazko liburuak.** Aranburu jauregiko helduen liburutegian, euskarazko 664 mailegatu zituzten iaz erabiltzaileek. Errotako haur liburutegian, berriz, euskarazko 6.355 liburu mailegatu zituzten gaztetxoek.

**Luismi Espinosa ◊ Abesbatza lehiaketako zuzendaria**

Tolosako Ekinbide Etxeak 44 urte daramatza Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa antolatzen, eta lan horregatik saritu dute. Iazkoak jasotako laudorioak kontuan hartuta, aurtengoa prestatzen ari dira TEEkoak.

**«Poz handia hartu dugu sariarekin; luxua da etxekoek gure lana aitortzea»****Imanol Garcia**

Tolosako Ekinbide Etxeak EHU-Donostiako Orfeoia saria jasoko du ostiralean, Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa antolatzekoagatik. Luismi Espinosa (Tolosa, 1956) da lehiaketaren zuzendaria. Poz handiz jaso dute berria.

**Zer suposatzen du jasoko duzuen sariak?**

Poz handia, batez ere, zeinek ematen duen ikusita, hau da, kultura arloko hemengo bi erakunde nagusienetakoak direla ikusita; Euskal Herriko Unibertsitatea eta Donostiako Orfeoia. Azken honi dagokionez, guretzat garrantzia berezia du, erakunde horrek abesbatzen mundua ezagutzen duelako. Luxua da etxekoek gure lana aitortzea.

**Espero zenuten saria jasotzea?**

Ez geniekien hautagaiak ginenik ere. Beraiek esan zigutenean jakin genuen. Espero ez izateak ilusio gehiago egiten dizu. Saria ezagutzen genuen, eta galdeketa bidaltzen digute saridunak proposatzeko, baina ez zitzaigun burutik pasa ere saridunak gu izango ginenik.

**Aurretik jaso izan duzue horrelako saririk?**

Turismoarekin lotutako bi sari jaso izan ditugu, hau da, turismoa promozionatzeko dugulako jaso ditugu sariak; 1970. urtean uste dut, eta 2000. urte inguruan.

**Beraz, kulturaren alorretik abesbatza lehiaketak jasotzen duen lehenengoa da.**

Bai, lehenengoa da. Eta, noski, oso ondo hartzen da. Hobe, egurren baino, sariak jasotzea. Sariengarrantzia emailaren arabera da, eta esan bezala, asko poztzen nau Euskal Herriko Unibertsitateaz, eta batez ere, Donostiako Orfeoia. Esan beharra dago, lehiaketa antolatzen 44 urte hauetan parte hartu duten milaka lagun lanari esker lortu dela saria. Beraiek gabe ezinezkoa izango litzateke lehiaketa egitea.

**Nolakoa izen zen azkeneko lehiaketa, 2011koa?**

Ekitaldi handi bat bezala dut gozoan. Jasotako iritzi guztiak positiboak izan ziren. Kritika bat entzuten duzunean, ikasi egiten duzu, baina mina ematen ditu



I. GARCIA

ere. Iazkoak bereziki laudorioak jaso zituen, bai lehiaketak berak, eta baita Europako Sari Nagusiak ere. Nire aldetik, oso gustura gelditu nintzen euskal abesbatzek egindako lanarekin, bai Landarbasok lehiaketan egindakoa, baita KUPek Sari Nagusian egindakoa ere.

**Aurtengo lehiaketaren antolakuntzan murgilduta izango zarete.**

Gauza dezente aurreratuta daude, beste kontu batzuetan erantzunaren zain gaude. Orokorrean, nahiko aurreratuta doaz prestatuntzak. Hori bai, ez dakigu oraindik finantzazioaren aldetik zerekin topatuko garen. Gu beste urteetan bezala antolatzen ari gara, baina ekonomiaren aldetik halako ziurtasun eza badugu.

**25 urte daramatzazu lehiaketaren zuzendari gisa. Nola mantentzen da urtero Tolosak duen maila?**

Egia esan, urtero harritu egiten naiz: mirari txiki moduko bat da. Urtero prestatuntza dut ea zer topatuko dugun. Herrialdez herrialde

begiratzeko, eta ematen du dena ezagutzen dugula dagoeneko, baina beti azzaltzen da koruren bat. Mirari txiki moduko bat da eta nire ustez, lanaren zatirik politena horixe da, ikustea nola osatzen den parte hartzaileen zerrenda. Lan ildo bat dugu hori lortzeko: dagoen onena bilatzen saiatzea. Bide errazago bat egon daiteke, hau da, izena ematen dutenekin zerrenda osatzea, baina horrek ez ditu kalitate bermatzen. Uneoro jardun behar duzu abesbatza bila, eta bere garai onen harrapatu.

**Nola ikusten duzu hemengo abesbatza kantuaren etorkizuna?**

Nik uste dut haurren prestatuntza gehiago prestatzen hasi behar garela. Instrumentuen alorrean heziketa badago, baina abesbatza kantuan –nola denok dugun gurekin instrumentua–, askotan, dena ahotsa eta belarri ona izatearen menpe bakarrik uzten dugu. Beraz, prestatuntza gehiago izatea faltan botatzen da.

**Iragarki laburrak****ALOKAGAI**

■ **Etxebizitza.** Tolosako Bera-zubi auzoan, 3 logelako etxebizitza alokatzen da. Interesatuak, deitu 628 16 37 22 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Etxebizitza alokagai Alegiako San Juan kalean; 3 logela, terraza eta bi trastelekurekin. Interesatuak, deitu 626 86 76 36 telefono zenbakira.

**Iñaki Garcia** > Nekazaria

Nekazari berria da Iñaki Garcia. Intxaurronen jaio zen baratzeaz eta animaliez inguratuta, eta bizitzak Aldaba Txikira eraman zuen. Gaur egun Berrobiko Telleri negutegiko arduraduna da.

# «Lurra errespetatzen dut, berak gero jatekoa ematen didalako»

**Agurtzane Belaunzaran**

Iñaki Garcia Zizurkilgo Fraisoron egin zuen nekazaritza ekologikoko ikastaroa, eta ondoren, Berrobin egin zituen praktikak. Berrobin bertan, Telleri negutegiko ardura hartu du, eta eskualdeetako Tolosa, Leiza eta Villabonako azokak bisitatzeko dituzte astero. Merkatuetan produktu ekologikoak saltzeko dituzte ilusioz eta proiektuz beterik dago Barazki Bizidunak izena jarri dion negutegia.

**Barazki Bizidunak izena jarri diozu negutegiari. Izen berezia ezta?**

Halaxe esaten didate! Ikasteko erraza eta baita berezia ere. Az-

ken batean, ekologikoan produzitzeak lurra bizirik mantentzen du eta landareak ere bizirik daudela irudikatzen du aukeratutako izenak.

**Berrobira iritsi berria zara, zer moduzko hasiera izan da?**

Fraisoron ikasketak egin eta praktikak hementxe egin nituen. Bertako nagusiek negutegia uzteko asmoa zuten eta niri proposatu zidaten hartzea. Horrela, abuztuaren lehenetik nirea da ardura. Hasiera guztia bezala, gogorra da. Lan asko daukat egiteko eta orain arte bakarrik egon naiz. Orain, praktiketan dauden bi ikasle ditut eta hauek lana arintzen didate.



A.B.

**Lanari aurre egiteko, urtarileko azken bi igandeetan auzolana antolatuz duzu.**

Lan karga handia dut eta inguruan dudan jende askok ere borondatea zuen esku bat botatzeko. Horregatik, bi igandetarako deialdia egin nuen eta jende mordo etorri da. Izan dugu zer egina. Udaberriko denboraldia ere gainean dugu eta gauza asko ditut prestatu beharrak. Oso pozik nago jendeak izan duen erantzunarekin. Jende askok niri ere eskertu dit bertan lanean aritzea. Agian, bizimoduan eta bizilekuan naturarekin harremana izateko aukerarik ez dutelako. Baratzean lanean aritzea terapia da. **Ekimen honekin jarraitzeko asmorik baal duzu?**

Baiezkoan nago, agian hilabetean behin antolatuko dut. Etorri nahi duenak eta ikasi nahi duenak, ateak zabalik izango ditu.

**Konpostagailua ere ate aurrean duzu herritarrek bertan hondakinak utz ditzaten.**

Argibideak eta guzti idatzi dizekiet. Jende ugari ibiltzen da paseoan inguru honetan eta etxeko hondakin organikoak aprobetxa-

tzea aukera oso ona da. Hondakin gutxiago sortuz eta bide batez, negutegian etekina aterako nioke hungarriari, naturak ematen duena naturari emanez.

**Gaztea eta nekazaria...**

Oso gustura nago nekazari izatearekin. Lurrarekin harreman zuzena dut eta gainera berarekin errespetuz jokatzeko, ekologiko eran produzitzen baitut. Nire lana oso ondradua da, bankero batena bezain ondradua. Nik lurra errespetatzen dut, berak gero jatekoa ematen didalako.

**Negutegian lurrarekin harremana eta merkatuetan jendearekin. Aspertzeko denborarik ez duzu.**

Astean lau merkatutan izaten naiz, Villabonan, Ordizian, Leitzan eta Tolosan. Nire bezeroek kalitatea eta produktua onartzen nahi dituzte. Azken batean, ekologikoan kontsumitzea eta produzitzea bizitza filosofia bat jarraitzea da.

**Proiektu berri ugari dituzu buruan datozen urteetan martxan jartzeko.**

Fraisoroko ikasketetan proiektua idatzi nuen eta huraxe aplikatu nahi dut. Denbora beharko dut baina, herrian kontsumo taldea

sortu nahiko nuke, garaian garai-koa kontsumitzeko eta bertatik bertara produktuak kontsumitzailen eskuetan jartzeko. Bestalde, baratze sozialesen ideia ere hortxe dago; jubilatuek, langabeteuek edota baratze gustuko duen jendeak hemen lan egin, trukean produktuak emanez. Eta webgunea egitea ere helburuetako bat da, orain sare sozialetan *Facebook/barazki bizidunak* jarraitzeko aukera duzue.

**Barazkiak ekologiko moduan sortzen dituztu, loreak ere bai?**

Ez loreak ez, baina datorren denboraldian ongari ekologikoak erabiliz hazi nahi ditut loreak. Guztiak ekologiko eran sortzea dut helburu.

**Ekologiko eran produzitzeko zein metodo erabiltzen duzu?**

Osinean ura, amona mantangorriak, ongari eta intsektizida ekologikoak... Egun batean albo zelaian amona mantangorriak biltzen ari nintzen landare zorriari aurre egiteko eta herritarrek harrituta begiratzen zidaten. Bada ere liburu gomendagarri bat *Plantas para curar plantas* izena duena.

**Erosi**  
**KILOMETROAK 2012ko jantziak**  
**euskalherrikoplaza.com-en:**

[www.euskalherrikoPLaza.com](http://www.euskalherrikoPLaza.com)

**NEGIn**

Irudia  Ibarra**EUSKAL MUSIKA, UZTURPEN**

Uzturpe ikastolak kultur astea abiarazi zuen astelehenean, eta ordutik hainbat ekitaldi burutu ditu, tartean euskal musika tresnen inguruko saio didaktikoa 20 Hatz proiektuko kideen eskutik. Atzo jokoak eta jolasak ere egin zituzten Azkue kaleko lokalean. Gaur ere jokoak egingo dituzte, batetik, eta bestetik, Emeterio Arreseko erakinean 2 urteko haurren gurasoei informazioa emango diete. Igan-dean bukatuko dute kultur astea. HITZA

**Hondakinen gaiarekin alkatea «tranpa» egiten ari dela dio PSE-EEK**

Amasa-Villabonako Maria Luisa Arija zinegotziak eztabaida «gardena, argia eta zintzoa» eskatu du

**Erredakzioa** Amasa-Villabona

Maria Luisa Arija Amasa-Villabonako PSE-EEko zinegotziak, hondakinen gaiaren inguruan Galder Azkue alkatea «tranpa» egiten ari dela salatu du. «Gipuzkoar bakoitzak 1.600 gramo hondakin sortzen ditu, eta guztira urtean 400.000 tona zabor. %43,31 birziklatzen da, eta Gipuzkoa gehien birziklatzen den herrialdeetako bat da», gaineratu du zinegotziak.

Amasa-Villabonako alkateak, sortzen den hondakinen %90a birziklatu daitekeela esan duela eta, «mezua desitxuratzen» ari dela salatu du Arijak. «Atez ate-

koarekin hondakinak zero bilakatzen direla esaten duena gezurretan ari da, edo Gipuzkoa zabor-tegiz betetzea ezkututzen du», gaineratu du.

Arija konbentzituratu dago «edukiontzien birziklatzea elikatzen» dutela, eta horregatik, hondakinen inguruko bilketaren eta tratatzearen gaineko «eztabaida argi, gardena eta zintzoa» egiteko eskatu dio alkateari.

Era berean, PSE-EEko kidearen ustez, «ez da egia atez atekoarekin edukiontziekin baino gehiago birziklatzen denik». Edukiontzia erabiltzen duenak «nahi duelako egiten du, aukerakoa da, eta kontzientziatuta birziklatzen du». Atez ateko sistema obligaziozkoa dela dio. «Hondakinak desagerrarazi egiten ditu», gaineratu du. «Arrakastaz hitz egiten duten bitartean, Usurbilen %36-40a desagertu da, eta Hernanin %66a, hondakinak aldameneko herrietara eramanez», dio.

**Guztira 350 ume baino gehiago pasa dira Gabonetako Haur parketik**

Amasa-Villabonako udalak eta Oria merkatariaren elkarteak «eskerrak» eman dizkie komertzioei eta taldeei

**Erredakzioa** Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako Udalak eta Oria merkatariaren elkarteak «bihotz-bihotzez» eskertu die Gabonetako Haur Parkearen antolatuntzan aktiboki parte hartu duten hainbat komertzioei eta taldeei. «Guztira 350 ume baino gehiago pasa dira parketik, eta benetan kopuru aparta da», adierazi dute. «Eskerrik asko eta ia hurrengo batean denon artean beste ekimen bat aurrera ateratzen dugun, Villabona bizirik baitago», nabarmendu dute Galder Azkue alkateak eta Kitilo Fernandez Oria elkarteak lehendakariak.

## Gutuna

**18 urtez olatu gainean**

1994. urtean sortu zen Bedaion, Artubi Kultur Elkarteak, bedaiotarren elkargune eta Bedaioren garapenerako tresna izan zedin.

Bere helburuak ziren eta dira bedaiotarren elkargunerako topaleku izan, auzoan sortu zitezkeen arazoei konponbide bat eman, gizarteko hainbat alorreko ekitaldiak (kultura, kirola, musika, jaiak, hizkuntza, ohiturak...) aurrera atera eta erakunde publikoekin batera auzoaren ongi izatea bultzatzea.

Eta zer ikusi dauka honek olatuarekin, esango duzue; non dago olatua?

Oso erraza: ez dugu itsasorik, beraz olatua begiez ikustea oso zaila, ezta Donostia bezala 2016 kultur hiriburuz izateko inongo olatu pretentsiorik ere. Bedaiotarrek, ordea, olatuak bere barnean daramaten indarra bezala, badugu auzolanaren indarra, ilusioa eta kemena 2012. urtean ere, orain arte bezalaxe hainbat ekitaldi antolatuta eta Bedaioren garapenerako hainbat ideia eta proiektu aurrera ateratzeko. Energia ez baita sortzen, ez da desagertzen, eraldatu baizik, eta urteak igaro ahala, gure energia garai berrietara eraldatu eta egokitzen doa.

Urte hauetan zehar administrazioarekin (udalarekin, diputazioarekin,...) elkarlanean aritzea ere tokatu zaigu. Legeal-

diak legealdi, beti ildo berberari eutsiz, elkarlanean, Bedaio aurrera ateratzeko helburuarekin. Eta zergatik ez esan, beste proiektu batzuentzako ere eredu izan garela jakinik.

Olatuak bezala joan etorrian, joandakoak ditugu 1994. urtetik 2011ra arte pasatako urteak, eta ez dut hainbat pertsonai, ekintza eta proiekturen zerrenda egingo, bai esan ordea olatuaren etorria bezala 2012. urteko junta berria ere ekintzaz blai egiteko asmoarekin datorrela datorrigun urtera.

Ez dira faltako Bedaioko Mendi eta BTT Proba, Zaldi Raid-a, asteburu kulturala, Harrijaia, bertso afaria, ikastaroak, mendi irteerak, hitzaldiak,... eta gauzatzen ari diren eta gauzatuko diren proiektuak (herri bidea, ur hornidura kaskoan, hitzarmen berria, kaskoaren urbanizatzea,...).

Lanerako prest dagoen edozeini atek zabalduz, lehenengo gonbidapena barrikoterako izango dugu otsailaren 11n, eta garaia eskatzen duen bezala sagardotegiko menua izango dugu dastagai, eta nola ez, protagonista, sagardoa.

Horrela gonbidaturik zaudete denok, gurekin batera, olatua hartzea.

■ **Nekane Izagirre**. Artubi Kultur Elkarteak kidea.

Irudia  Alkiza**IRAKASLEAK, MURRIZKETEN KONTRA**

Alkizako Herri eskolako irakasleek atzo goizean elkarretaratzea egin zuten 09:00etatik 09:15etara. *Zerbitzu publikoak garatu, murrizketarik ez lelopean*, eskolaren aurrean egon ziren. Datorren

astearterako ere, hilak 7, hamabost minutuko kontzentrazioa deitu dute. Eta hilaren 9rako iragarritako dagoen geldialdiarekin bat eginez, lau orduko geldialdia egingo dutela adierazi dute. HITZA

**VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA**

Euskalduna, Denona eta Denontzat

**JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA**



Fleming Ikastetxea.

Haur Hezkuntza Auzoan (2-6 urte)  
Lehen Hezkuntza Auzoan (6-12 urte)  
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Fax: 943 69 1413  
012277@hezkuntza.net

**Matrikulazio epea:**  
urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

**HAUR TXOKOA ZERBITZU BERRIA**  
7:30etatik 9:00tara  
16:00atik 17:00tara



Enribea Ikastetxea.

Darrigonezko Bigarren Hezkuntza  
Auzoan (12-16 urte)  
Tel./Fax: 943 69 37 33  
012952@hezkuntza.net  
www.enribea.eu

Kirikiño aisialdi taldeak ospakizunetan murgilduta hasi du urtea. Inauterien atarian Astelenitako entseguekin buru-belarri dabilzan arren, talde tolosarraren 25 urteak gogora ekarri dituzte iruditan, erakusketa batekin.

# Taldeko oroitzapenak iruditan

## Itzea Urkizu

**K**irikiño aisialdi taldeak 1986an hasitako bidea iruditan erreparatu nahi izan du, 25. urteurrenaren harira antolatu duten erakusketan. Antonio Maria Labaien kultur etxean ikusgai izango da datorren igandera bitarte, 17:30etik 20:30era.

Hainbat panelen bidez, mende laurden honek aisialdi taldeari eman diona gogora ekarri ahal izango dute bisitariak. Juanma Carretero arduradunak azaldu duen bezala, urte bakoitzari eskainitako panel bana jarri dute aretoan: «Bestalde, Inauteriei bereziki eskainitako atalak ere badira. Hauek gure lokaleko korrido-reetan jarrita genituen, eta erakusketara ekartzea bururatu zitzaigun».

Betiko argazkiez gain, ordea, Kirikiñoaren 25 urteotako irudiak ikustera joaten diren bisitariak, multimedia DVD bat ikusteko aukera ere izango dute: «Erakusketan bertan proiektatuko dugu. Hainbat atal ditu: alde batetik, urte urteko irudiak ikus daitezke, urte bakoitzaren gainean klik eginez. Beste atal batean, Inauterietako argazkiak sailkatu ditugu, eta azkenik, haur eta gazteei nahiz begiraleei eskainitako atal bana dago DVDan, hauek ere argazkiz beteak».

Erakusketa biribiltzeko, Kirikiño aisialdi taldeko kideek urteurrenerako bereziki prestatu dituzten elastiko, jertse, motxila eta abarrek salgai izango dira kultur etxean bertan jarri duten postu-txoan.

### Bilketa lan gogorra

Erakusketa behar bezala antolatzeko lanekin, duela urtebete inguru hasi ziren Kirikiñoako arduradunak. Juanma Carreterok ez du zalantzarik izan: «Argazkiak biltzeko lan handia sortu digu, sekulakoa. Izan ere, argazki zaharrenak diapositibetan gordeta genituen, eta horiek guztiak eskanneretik pasatu behar izan ditugu. Egia esan, hau izan da urteurrenaren harira antolatu ditugun jarduera guztien artean, lan gehiena eman diguna».

Digitalizazio prozesuaren ondoren, panel bakoitzerako 25 edo 30 argazki aukeratu dituzte taldeko begiraleek, gehienak eurenak: «Pena izan da, argazki zahar asko, hezetasunagatik eta, hondatu egin baitzaizkigu». Hala ere, taldetik pasatako begirale eta ikasle ohi askok beren argazkiak bidali dizkiete urteurrenaren harira.



Aisialdi taldearen 25 urteak erreparatzen dituen erakusketa kultur etxean dago ikusgai, igandera bitarte. | URKIZU

«Eta hori eskertzekoa da», dio Carreterok.

Erakusketak urte beteko lana eskatu dien arren, aisialdi taldearen artxiboa digitalizatzeko oso baliagarria izan zaie Kirikiñoako arduradunei: «Lan handia egin dugu, baina orain argazki guztiak ordenagailuetan gordeta ditugu, artxibatuta, eta gerora begira ere hor izango dira. Beraz, 25. urteurrenaren aitzakira, gure materiala hobeto antolatu dugu».

### Erakusketa antolatzeak urte beteko lana eman die arduradunei

### Inaugurazio egunean, 150 lagunek bisitatu zuten kultur etxeko aretoa

### «Eurekin gogoratzen gara»

Mende laurdena urtero ez dela betetzen, eta Kirikiñoako begiraleek jarduera bereziak antolatzeari ekin zioten iaz: «Oso argi izan genuen, hasiera-hasieratik, erakusketa bat antolatu nahi genuela».

Lehenik Txantxangorri aisialdi taldean, eta gero Kirikiñoan, 170 begirale aritu dira lanean urte hauetan guztietan, eta Carreterok dio aurten beste 50 ari direla: «Beraz, guztira 200 begirale baino gehiago pasa dira taldetik. Era berean, haur eta gazteak ere, 3.000 baino gehiago izan dira».

Honen aurrean, eta urteak aurrera joan ahala zenbait lagune-



Argazki zaharrak nahiz berriak ikus daitezke erakusketan. HITZA



Urteurrenerako bereziki prestatu dute materiala. | URKIZU

kin harremana hozten joaten denez, erakusketa lagun hauei nolabaiteko omenaldia egiteko ere baliatu nahi izan du talde tolosarrak: «Erakusketak balioko digu, taldeko guztiak, paneletan edo DVDan daudela erakusteko, eta eurekin ere gogoratzen garela erakusteko. Gainera, duela 25 urte zenbaitek hasi zuten bideari jarraitu diogu, antzeko jarduerak eginez, eta balore bertsuekin, eta hori ere ikusi ahal izango dute».

### Lehen eguneko arrakasta

Kirikiño aisialdi taldeko arduradunek pasa den larunbatean inauguratu zuten erakusketa, urtarrilaren 28an.

Lehenengo egunean, 150 lagunek bisitatu zuten kultur etxeko aretoa, eta aisialdi taldeko antolatzailak oso pozik agertu dute euren burua: «Erakusketak atal asko ditu, eta guztia ondo ikusi nahi dutenek denbora behar izaten dute. Larunbatean, esaterako, izan zen ordu eta erdi kultur etxean pasa zuenik! Beste batzuek, ikusteko hainbeste gauza ez daudela pentsatzen dute, eta ez die denborarik ematen guztia ikusteko. Beraz, jendea berriro itzuliko da erakusketara».

Juanma Carretero begiraleak datorren igandera bitarte oraindik aste luzea dutela dio, eta orain artekoarekin oso gustura daudela: «25 panel, DVDa eta Inauterietako argazki asko daude. Polita geratu da, eta oraindik ere Tolosako eta inguruko jendea bertaratuko dela uste dut».

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

# Zentro berezietara eramango dituzte adingabe gatazkatsuak

Gipuzkoako Foru Aldundiak Zizurkilgo Pagamuño auzoan dagoen adingabeen zentroa ez duela itxiko esan du

Ander Rodriguez diputatuaren esanen aurka hitz egin dute PPK eta PSE-EEk

**Asier Imaz** Zizurkil

Zizurkilgo adingabeen zentroan gatzetxoren batek arazoak sortzen baldin baditu, zentro berezitu batera eramateko neurriak hartuko ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak, besteak beste, eman beharreko urratsak azkartuz. Ander Rodriguez Gizarte gaietarako diputatuak azaldu ditu aldundiak gaiaren inguruan hartutako erabakiak, eta horien artean, zentroa ez ixteko asmoa dago.

PSE-EE, PP, EAJ eta Aralarrek eskatuta hitz egin du Ander Rodriguezek diputazioan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Hernani, Donostia eta Zizurkilgo adingabeen

zentroen inguruan hartu dituen erabakiak azaltzeko.

Haur eta nerabeak desegituratutako familietatik datozela aipatu du Rodriguezek, eta foru aldundiaren helburua hauek gizarteratzea dela: «Gure zentroak ez daude lau metroko ormekin itxita, Justizia sailaren esku dagoen Zumarragako zentroa bezala». Gizarteratze prozesu horretan, bizilagunekin tirabirak egotea «logikoa» dela aipatu du Gizarte gaietarako diputatuak.

Hala eta guztiz ere, iraganean gertatu diren arazoak ez errepikatzen, diputazioak nerabe gatazkatsuak zentro berezietara eramateko neurriak hartuko di-

rela aipatu du Ander Rodriguezek.

Segurtasun zainzaile bat jarztearen inguruan, aukera hori erabat baztertua dagoela esan du diputatuak, Zizurkilgo zentroa bideratzen duen araudiak berak debekatzen duelako, besteak beste.

Adingabeen zentroa Zizurkilgo Pagamuño auzoan aurkitzen da, bi bizitzako etxebizitza batean. Alde batean, 12-18 urteko bost nerabe bizi dira, eta bestean, adineko senar-emaztea. Gipuzkoako Foru Aldundiak, etxebizitza horietako bat adingabeentzako zentro bezala erabiltzeko erabakia hartu zuen 2007an. Bizilagunen lehen salaketak urte horretakoak dira. *El Diario Vasco* egunkarian agertutakoaren arabera, ondoko bizilagunek hainbat salaketa jarri dituzte urte guzti hauetan. Erantzintzan, Gipuzkoako Foru Aldundian eta udal txean. Jasotako erantzunarekin, ordea, etsita aurkitzen direla zioten: «Hau jasanezina da, ezin dugu horrela



Pagamuño auzoan dago 2007az geroztik adingabeen zentroa. A.I.

bizi. 24 orduetan zarata egoten da, ormetan golpeak... egun batzuetan lo egitea ere ezinezkoa egiten zaigu». Pagamuño auzoko hainbat bizilagunekin hitz eginda, euren bizilagunen arteko arazoak agerian gelditzen da, eurek zuzenean arazorik ez dutela izan onartu arren.

## PPren eta PSE-EEren kritikak

Ander Rodriguezen agerraldiari kritikekin erantzun zien PPren eta PSE-EEren ordezkariak. «Kasu isolatuak» aipatu izana ez zutela ulertzen esan zuen Maria Jesus Egido PSE-EEren ordezkariak: «Zizurkilgo kasuan arazoak 2007an hasi ziren, eta bizilagun

kaltetuarekin egon ondoren, haserre baina gehiago, etsita dago».

Maria Asuncion Guerra Alderdi Popularreko kideak «logikoa» hitza erabili izana ez zuen ongi ulertzen: «Gure ustez hori esatea ez da kasu honetan egokiena. Bizilagunari egoera jasangaizta egiten zaio, eta horregatik erabaki du salaketa egitea. Adingabeen eskubideek ezin dituzte adinekoen eskubideak zapaldu».

EAJ alderdiko Eider Mendozak bere aldetik, irtenbide zailako arazoak dela onartu zuen. Bilduko Idoia Ormazabalentzat adingabeen gizarteratzea guztien ardura da, eta ez bakarrik administrazioarena.

## ‘Zazpikoloroa’ etzi iritsiko da Ibarako kiroldegira

Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizunerako azken sarrerak Subegin daude salgai

**A. Imaz** Ibarra

Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Euskal Herriko pailazo ospetsuenak, Ibarra etorriko dira etzi, otsailaren 3an. Belabieta kirolde-

giari, 18:00etan, euren azken lana aurkeztuko dute: *Zazpikoloroa*. Emanaldiaren ondoren, pailazo eta hauen lagun guztiak bertaraten diren haur eta guraso guztiekin elkartzeko dira, ohi bezala, muxuak eta irriak banatzeko.

Ibarra emanaldia Subegin kultur elkaratek eta Eneko Ariztaren Lagunak kultur taldeak antolatu dute elkarlanean, udalaren eta udal langileen laguntzarekin. Uzturpe Ikastolaren laguntza ere jaso dute, autoak aparka-

tzerako unean bertan egokituko baitute aparkalekua. Lan hau guztia bideratzen, elkarrekin kideez gain, hainbat guraso ariko dira lanean.

## Azken sarrerak, Subegin

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, oraindik azken sarrerak saltzeko gelditzen dira.

Hasiere batean eskualdeko hainbat puntutan jarri zituzten sarrerak, baina hauek amaizten joan dira. Saltokietan gutxi ba-



‘Zazpikoloroa’-ren kartela. HITZA

tzuk eduki beharrean, denak puntu jakin batean pilatzea erabaki dute. Hori Ibarako Subegin izango da. Ondorioz, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Zazpikoloroa* ikusteko sarrerak behar dituenak, Ibarako Subegin izango ditu azkenak.

Antolatzaileek esan dutenez, txartel guztiak ez balira salduko, egunean bertan jarriko dituzte salgai Ibarako kiroldegian kanpoaldean, zazpi euroren truke.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



50  
-40

GOIZA	LAINOTUTA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	0°
HOTZENA	-6°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1.687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzalde:** 687 410 118. leitzalde@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Agenda**

**DEIALDIAK**

■ **Tolosa.** Hirukide ikastetxeak 2 eta 3 urteetako haurrak matrikulu nahi dituzten gurasoei zuzendutako ekitaldiak antolatu ditu. Gaur ate irekien jardunaldia egingo dute 17:00etatik 19:00etara.  
■ **Ibarra.** Uzturpe ikastolaren kultur astearen barruan gaur, 14:30ean, jokoak eta jolasak talerra egingo dute Azkue kaleko lokalean; eta ateak zabalik ekimena ere izango dute Emeterio Arresen, 2 urteko haurren gurasoentzat. 17:00etan euskarazkoen txanda izango da, eta 18:30ean, informazioa gazte-raz jaso nahi dutenena.

**ERAKUSKETAK**

■ **Tolosa.** Kirikiño aisialdi taldearen 25. urteurrena dela eta erakusketak jarri dute kultur etxean otsailaren 5a bitarte. 17:30etik 20:30era bisitatu daiteke, eta bertan inauterietako argazkiak, eta aisialdi taldearen historia ezagutzeko panelak ikusi daitezke. DVD interaktibo bat ere ikusi ahal da.  
■ **Ibarra.** 2011ko jaien argazkiak biltzen dituen erakusketak ikusi daitezke kultur etxean martxoaren 2a arte. 10:30etik 13:00etara, eta 15:30etik 21:00era ikusi ahal dira irudiak. Kopiatu nahi duenak kultur etxeko harreraren bertan egin behar du eskaera, eta kopia bakoitzeko 0,50 euro ordaindu beharko du.

# Leitzako bi talde ariko dira Bardoak 2012 bertso lehiaketa berrian

Leitzaundi eta Leitza ta leitzarrak izena dute bi taldeek; finala, martxoaren 31n, herrian izango da

**Rebeka Calvo** Leitza



17 taldek hartuko dute parte Bardoak txapelketan. HITZA

↓ **Leitzarren saioak**

**OTSAILAK 10, OSTIRALA**

■ **Barañaingo Haizea** elkarteak. 20:00etan bertso askaria: Beteranoak-Leitza ta leitzarrak.  
■ **Berako Kaxerna** gaztetxean. 21:00etan bertso afaria: Berrarrak-Leitzaundi.

**OTSAILAK 12, IGANDEA**

■ **Leitzako Aurrera** elkarteak. 19:00etan bertso askaria: Leitzaundi - Bar-ideak.

**OTSAILAK 17, OSTIRALA**

■ **Leitzako Aurrera** elkarteak. 21:30ean bertso saioa: Leitza ta leitzatarrak-Jituk.

tzaila edo aurkezle bat, eta taldeko ordezkari bat izendatu behar dituzte. Era berean, talde bakoitzak etxeko saioa antolatzeko ar-

dura du, hau da, etxeko saioa aurkeztu behar dute taldekideek, eta saio batean epaile lanak egin behar dituzte. «Bardoak 2012ko helburuetako bat da bertsolearen arlo guztiak lantzea», azaldu dute Bertsozale Elkartetik.

Txapelketa hiru ataletan banatu dute. Lehenengoan, hiru taldeko bost multzo daude eta seigarren bat bikoa. Multzoko talde bakoitzak bi saio izango ditu, multzo bereko beste bi talderen kontra, etxean eta kanpoan. Guztira lehen fasean 17 saio izango dira otsailaren 19a bitarte.

Bigarren atalera multzo bakoitzeko lehena pasako da, sei talde guztira. Hiruko multzotan bina saio egingo dituzte, etxean eta kanpoan, eta martxoaren 2tik 18ra iraungo du. Bukatzeko, hiru talde pasako dira finalera. Finala, aipatu bezala, Leitzaundi izango da, martxoaren 31n. Egun osoko festa egingo dutela argitu dute, eta bederatzita bertsoleak izango direla oholztan.

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Tolosa.** Bronte, C.I. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.  
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbaren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

**Agurrak**



**Urte askoan!**  
**Nahia Ortiz San Vicente (Larraul).**  
Gaur 6 urte. Zorionak bihurri etxeko guztien partetik, eta bereziki aita, ama eta zure anaia Inharren partetik.

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
tolosaldean@hitza.info  
●●●● agurrak

## Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

liburua erosteko aukera duzue:

• **Liburudendetan:**

Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €

**Anoetan:** Kuku-lore liburudenda.  
**Ibarran:** Lurdes liburudenda.  
**Tolosan:** Aramburu liburudenda, Elkar liburudenda eta Babel liburudenda.  
**Villabonan:** Kazetaria liburudenda.

• **HITZAko bulegoan:**

Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

• **Eskaintza berezia**

HITZAren egoitzara etortzean, '1936ko Gerrako Oroitzapenak' liburua ere eskuratu ahal izango duzue:

prezioa 10 € eta harpidedunek 8 €.

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean + 1936ko Gerrako Oroitzapenak, bi liburuak, 25 €, harpidedunek 20 €.

